

Euskararen itsasoan blai

Milaka eta milaka euskaltzale bildu zituen igandean Orioko eta Zarauzko Kilometroak jaiak; eguraldi ona lagun, antolatzaileek «balorazio ezin hobea» egin dute, eta lagundu duten guztiei «eskerrak eman» nahi dizkiete

UNAI ZUBELDIA - DONOSTIA

Itsaso zaharra, olatu berria lelopean, jai giroan murgildu ziren bi herriak, Orioko eta Zarautz, egun handiko zalaparta atzean utzi eta normaltasuna berreskuratzeke lanean zebiltzan atzo. 120.000 euskaltzale inguru bildu ziren Orioko Herri Ikastolak, Zarauzko Salvatore Mitxelena Herri Ikastolak eta Zarauzko Oteitza Lizeoak antolatutako ibilbidean, eta, antolatzaileek adierazi zuten, urte osoan egindako lanak fruitua eman zuten. Izan ere, goiz-goizetik, eguzki printzen babesean, milaka eta milaka lagunek bat egin zuten ikastolen aldeko egunarekin.

Benito Lertxundik, hasiera

Alaba ondoan zuela, Benito Lertxundi Orioko abeslariak eman zion hasiera 2004ko Kilometroetako ekitaldiari, historiako 28.ari. Benito Lertxundiri Pello Orbañanos Orioko Herri Ikastolako lehendakariak hartu zion lekukoa, eta Jorge Oteiza artista oriotarra gogoan hartuta, «bertaratu zirenak eta hainbat arrazoiengatik Oriora eta Zarautzera joan nahi baina ezin izan dutenak» ez zituen ahaztu nahi izan. Ikastolen aldeko festan euskal alderdi politikoetako eta euskal kulturako hainbat alorretako kideak ere izan ziren. Ber-



ZARAUTZEN jende andana bildu zen; 14 kilometroko ibilbidea izanagatik, gune batzuetan jende pilaketa handiak izan ziren. Antolatzaileen arabera, 120.000 pertsonatik gora bildu ziren Kilometroetara. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

tan ziren, besteak beste, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta bozera-mailea, Angeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, Joxe Joan Gonzalez Txabarrri Gipuzkoako diputatu nagusia, Joseba Egibar (EAJ), Joseba Permach (Sozialista Abertzaleak) eta Iñaki Irazabalbeitia (Aralar). Ikastolen Elkarteak ordezkariek, Orioko eta Zarauzko alkateek eta beste hainbat kidek ere ez zuten hutsik egin nahi izan.

Asko garraio publikoan

Euskotreneko arduradunek greba deialdia bertan behera utzita, eta antolatzaileen aholkuari jaramon eginda, askok garraio publikoa erabili zuten Oriora eta Zarautzera biltzeko —Euskotrenen prentsa oharraren arabera, 23.000 pertsona inguruk—. Goiz partean arazoren bat edo beste izan bazen ere, antolatzaileek Kilometroen 28. ekitaldia «arrakastatsua eta ez-beharrik gabea» izan zela, eta «antolatutako ekitaldi guztiak arazorik gabe» egin zirela adierazi zuten.

Bat amaitu eta bestea hasi. Oriok eta Zarautzek lekukoa eman diote Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzari. Urriko lehen igandeak bilduko ditu, orduan ere, Gipuzkoako ikastolen aldeko euskaltzale guztiak.

ZIGOR SAIZAR ⓘ ORIOKO HERRI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

«Laguntzaile bakoitzari zorionak ezin emanaren pena daukat»

U. Z. - DONOSTIA

Orioko Herri Ikastolako zuzendaria da Zigor Saizar, eta igandeko zorabioa pasatu ezinda, pozez gainezka eta jendeari eskerrak eman nahian zebilen atzo.

Hotz-hotzean, zer balorazio egingo zenue?

Zoragarria. Igandeko eguna aztertuta, pozez zorutzen gaude. Horrelako jendetza bilduta, jendea pilatu eta tren estazioetan nahiz autobus zerbitzuetan beti izaten dira momentu larri batzuk, eta, alde horretatik, barkamena eskatu beharrean gaude. Dena den, une horietan guztiei erantzutea oso lan zaila da.

Azken unean greba bertan behera uzteak ere lagundu zituen.

Euskotreneko arduradunei egin duten ahalegina eskertu beharrean gaude. Ni tratuan aritu nintzen enpresako arduradunekin, eta badakit eurentzat ere ez dela gozoa izan. Ordu asko pasatu dituzte arazoa konpondu nahian. Eurentzat ere igandekoa egun berezia zenez, gure alde zerbait egiteko gogoia zuten. Hasierako greba zela eta, autobus zerbitzua indartu behar izan genuen, eta euren aldetik jaso dugun babesa ere txapela kentzeko modukoa izan da.

120.000 pertsona inguru bildu ziren Oriora eta Zarautzera?

Antolakuntzako kideek kopuru zehatzetan ibiltzerik ez genuke nahi, euskararen aldeko jairik arrakastatsua izan den edo ez baloratzen hasiko baikinake. Eguraldia lagun, jendetza hurbildu zela adieraztea nahiko genuke. Dudarik gabe, greba deialdia bertan behera uzteak ere lagundu zigun horretan.

Aitzakiarik ez duzue, beraz.

Adierazgarri batzuk ikusi besterik ez dago. Arropa salmentak, tonbolako txartelak, janari eta edariak hartzeko txartelak... Horiek guztiak dira bildu zen jendetzen erakusgarriak. 120.000, 130.000... zifra kontuetan sartzeak ez du zentzurik. Horiek

ahaztuta, etorri zen jende guztiari eta, batik bat, horiek guztiak artatzeko lan egin duen jendeari eskerrak eman beharrean gaude.

Bi herriren arteko elkarlana izan da arrakastaren oinarria edo ardatza.

Elkarlana, eta jendearen borondatea. Urte guztian 600 pertsona ibili dira lan orduetatik kanpo ahal zutena eta gehiago ematen; igandean, berriz, 3.000 pertsonatik gora. Borondatez, gure ikastolen alde lan handia egin dute; hori eskertzeko hitzik ez dago. Gurasoak, irakasleak, ikasleak, guraso eta irakasle ohiak ikustea izugarria izan da. Pena bat daukat: banan-banan guztiei zorionak ezin eman izana. Urte guztian erakutsi dugu ikastolen eta euskararen alde lan egiteko jendea badagoela.

Izandako irabaziak zenbatzeko goizegi bada ere, zuen asmoei ekiteko moduan izango zarete.

Ikastolen aldeko jaietan ateratzen den dirua ikastola bakarraren-

tzat izaten da normalean. Kasu honetan, baina, hiru ikastetxe gara antolatzaileak eta irabaziak hiruron artean banatu beharra izango ditugu. Bultzada ekonomikoa izango da, noski, baina horrekin ez daukagu dena konponduta; beste bide batzuk ere aurkitu beharko ditugu. Hiru proiektuetarako lehenengo harria jarri dugu.

Arrasatek, Aretxabaletak eta Eskoriatzak hartu dute lekukoa. Zer aholku emango zenieke?

Animoz hartzeko. Egia aitortuta, lan eta ardura handia da, festa honekin Gipuzkoako ikastolak ordezkatzen baititugu. Bakoitzak egiten duen lanak erakusten du gizartean ikastolak nolakoak garen eta bakoitzak lan egiteko zer ardura duen. Badakit horrela egingo dutela, baina arduraz hartzeko eskatuko nieke. Beti egoten dira akatsak, gurean ere izan dira, eta horietatik ikasita, aurtengo Kilometroak jaiak baino hobea egiteko erronka dute.